

Buruketak

Mariak 127 erlauntz zeuzkan, baina 18 saldu egin zituen. Gainerako erlauntzetatik, 29na kg ezti bildu zituen. Zenbat kilo ezti bildu zituen guztira Mariak?

Maitek 350 € zituen aurreratuta. Atzo 64 € gastatu zituen, eta gaur, 32 €. Zenbat diru geratu zaio?

Eskola batean, 15 laguneko 2 talde dabilta judoan eta 12 laguneko 3 talde karatean. Zenbat ikasle dabilta eskolan?

Idoiak 126 kromo dauzka eta 3 multzo berdinetan banatu ditu. Zenbat kromo jarri ditu multzo bakoitzean? Geratu al zaio kromorik banatu gabe?